

Ilunpetan

Felipe Juaristi

"Zazpi urkatuak"
Leonid N. Andreiev
euskaratzailea: Jose Morales
Alberdania / Elkar, 2006

Liburuari izenburua ematen dion testua narrazio luzea da, eta, egia esan, Leonidas Andreiev ezaguna bada narratzaile aparta izan zelako da. Garai batean bederen haren testuak sarri azaltzen ziren ipuin antologietan. Orain gutxiago, noski, baina horrek adierazten du aldatu egin direla ipuinari buruzko iritzi eta gustuak, besterik gabe. Hala ere, oso estimatua izan zen garai batean. Cansino Assensek gazteleratu zituen haren lanak, arrakasta handiz, gainera. Indarra dute, oraindik, itzulpen horiek, argitaratzen baitira, itzultzailearen izenik gabe. Bizitza, ordea, beste kontua da, eta Andreieven bizitza ez zen, dakigunez, oso zoriontsua izan. Schopenhauerren eta Nietzcheren ikasle izanik, haien bizi-ikuspegia onartu eta barneratu zuen oso goiz. Beraz, malenkoniara limurtu zen berehala, eta suizidio nahiak jo zuen behin baino gehiagotan: le mal du siècle, jakina. Finlandian hil zen 1919an, eta handik ez oso urruti, Victor Sjöströmen eskutik etorriko zen haren berpiztea, zinemara eramane baitzuen haren lan bat, "Pailazo malkoak", hain zuzen. Geroago, Ingmar Bergman ere Andreieven ipuinetan oinarrituko zen zenbait pelikulatan.

Profetatzat zuen bere burua. Munduaren zirkua ikusi zuen, barregura baino negargura sorrarazten duen pailazokeria. Baina berak ez zuen barre egiten; oso gutxitan eta inor ez zuenean begira. Etsipenez jaio balitz bezala zen, mundua negar egiteko tokia zitzaion, baina negar ere ezin egin zuenez, halako erdi barre erdi negarra geratu zitzaion aurpegian, eta testuetan, batzuetan ironia bihurtzen zitzaiona.

"Zazpi urkatuak" heriotzara kondenatutako zazpi lagunaren historia da, ziegan daudelarik kontatua. Testu horrekin batera, liburuan daude, dotore itzulita, "Ilunpeak" eta "Espektoak" izeneko testuak. Horietan nabarmena da Andreieven sentimendua, sufritzen ari direnekiko maitasunez betea.

El Diario Vasco, 2006-07-21